

# **CURRICULUMETIK KANPOKO PRAKTIKEI (BORONDATEZKO PRAKTIKAK) BURUZKO OHIKO GALDEREN DOKUMENTUA**

## **1. Zer dira curriculumetik kanpoko praktikak edo borondatezko praktikak?**

Ikasleek egin ditzaketen praktikak dira, curriculumeko edo nahitaezko praktikez gain. Nahitaezko praktiken aldean, ikasleek berek bilatu dute praktikak egiteko zentroa. Helburua da graduan zehar jasotako prestakuntza praktikoa zabaltzea.

## **2. Norena da praktikak kudeatzeko ardura?**

Kudeaketa Praktiken Batzordearen ardura da lehenik, eta, bestela, Kanpoko Praktiken dekanordearena. Administrazio eta zerbitzuetako langileek ere laguntzen dute aipatutakoen kudeaketa egokia izan dadin.

## **3. Zeintzuk dira borondatezko praktikak egiteko bete beharreko baldintzak?**

Gutxienez, 120 kreditu izan behar dituzu gaindituta.

Gainera, borondatezko praktikak egin nahi dituzun zentroak psikologiako lanak egin behar ditu, eta, gutxienez, psikologiako titulua duen pertsona bat izan behar du, praktiketako instruktore lana egingo duena. Ikastetxeen kasuan, orientatzailearen profila ere onartuko da instruktore gisa.

## **4. Noiz egin ditzaket praktikak? Eta zenbat denboraz?**

UPV/EHUtik at egiten diren curriculumetik kanpoko praktikek 150 orduko iraupena izango dute GUTXIENEZ, eta behin bakarrik baliozkotuko dira, hautazko 6 ECTS kredituren bidez. NAHITAEZKOA da, gutxienez, 150 ordu

egitea, nahiz eta ikasleak, agian, 6 ECTS baino kreditu gutxiago behar izan. Borondatezko praktikak ikasturte osoan zehar egin daitezke, edo udan, edo nahitaezko praktiken jarraipen gisa 4. mailan.

- **Praktikak ikasturte osoan zehar:** hasitako ikasturtean zehar egin daitezke, irailaren 1etik abuztuaren 31ra bitartean.
- **Praktikak udan:** oro har, 3. mailan egin ohi dira, ikasleek 120 kreditu gainditu behar baitituzte (1. eta 2. mailako kreditu guztiak). Oro har, ekainetik aurrera egiten dira, eta abuztuaren 31 baino lehen amaitu behar dira nahitaez, ikasturtea data horretan amaitzen baita.
- **Curriculumeko praktiken luzapena 4. mailan:** aukera hori gauzatu daiteke, baldin eta praktikak egiteko zentroa eta ikaslea ados badaude. Beraz, ezin da luzapen bat eskatu derrigorrezko praktikak hasi baino lehen. Curriculum praktiken jarraipena kudeatzen da, borondatezko praktiken formatuan, 150 orduz, gutxienez.

## 5. Borondatezko praktikak bi aldiz edo gehiagotan egin al daitezke?

Borondatezko praktikak hainbat alditan eta zentro desberdinetan egin daitezke. Adibidez, udan edo ikasturtean zehar egin daitezke, hirugarren mailan eta laugarrenean, nahitaezko praktiken jarraipen gisa. Zentroa berdina edo desberdina izan daiteke. Praktikaldi bakoitzak gutxienez 150 orduko iraupena izango du. Kasu horietan, egindako ordu guztien kopurua Europako Gehigarrian jasoko da; hala ere, **ez dira inoiz emango 6 ECTS kreditu baino gehiago.**

## 6. Ikerketa praktikak egin al ditzaket fakultatean?

Bai, praktika horiek **autokudeaketa prozedura** baten bidez egingo dira, ikasleek proposatuta (hau da, interesa duten ikasleak fakultateko irakasleekin jarriko dira harremanetan), eta onartuko egingo dira baldin eta [UPV/EHUko ikasleen kanpoko praktika akademikoen Arautegiak](#) eskatzen dituen baldintzak betetzen badituzte.

Horretarako, eskaera dokumentua bete eta bidali beharko da.

- [\(Beste leihobat zabalduko du\) Ikerketa-talde batean praktikak egiteko eskaera \(docx, 63,06 Kb\)](#)

## 7. Nola kudeatzen dira borondatezko praktikak?

Ikasleek arduratu behar dute kudeaketaz, hau da, beraiek bilatu behar dute praktikak egiteko zentroa, betiere kontuan hartuta zentroak ez duela egon behar azken ikasturteetako Nahitaezko Curriculum Praktiken Katalogoan (begiratu katalogoak esteka honetan).

Ez da onartuko nahitaezko curriculum-praktiketarako zentruetan egindako borondatezko praktiketarako eskaerarik, praktiken luzapena dakartenak izan ezik.

Zentroak psikologo bat izan behar du, psikologiaren arloan lan egingo duena. Ikastetxeen kasuan, orientatzailearen profila ere onartuko da irakasle gisa.

Aukeratutako borondatezko praktiken modalitatea edozein dela ere, ikasleek borondatezko praktiken arduradunari (Monika Salgueiro: [monika.salgueiro@ehu.eus](mailto:monika.salgueiro@ehu.eus)) bidali beharko diote eskaera, eskatzen diren datu guztiekin eta borondatezko praktikak hasi baino HILABETE BAT LEHENAGO gutxienez

- Zentru berri batean borondatezko praktikak egiteko eskaera
- Praktika kurrikularrak boluntarioetara luzatzeko eskaera
- Ikerketako borondatezko praktiken eskaera

**Praktikak udan** egin nahi dituzten ikasleek dokumentuak dagokion ikasturteko **apirilaren 30 baino lehen** aurkeztu beharko dituzte. Ez da onartuko epez kanpoko eskaerarik.

## 8. Zer egin behar dut eskaerak aurkeztu ondoren?

Dokumentu horiek borondatezko praktiken arduradunak (Monika Salgueiro) erkatuko ditu, eta berak emango du oniritzia. Ondoren, praktiken hitzarmenaren hiru kopia sortuko dira, eta ikasleari abisatuko zaio idazkaritzara joan dadin haien bila. Ikasleak entregatu beharko du unibertsitateak eta berak sinatutako kopia bat praktikak egingo dituen zentroan, eta idazkaritzan entregatu beharko du hiru aldeek, hau da, unibertsitateak, ikasleak eta praktika zentroko arduradunak, sinatutako hitzarmenaren kopia bat praktikak hasi AURRETIK. Fakultateak ez du

aitortuko, ondorio akademikoetarako edo baliozkotzeko, aurrekoa bete ez duen amaitutako edo abian dagoen praktika bat.

## 9. Nork gainbegiratu behar ditu nire praktikak?

Borondatezko praktiketako ikasleak begirale bat izango du praktiken erakundean edo zentroan, eta tutore bat unibertsitatean. Eta horiexek arduratuko dira ikaslearen praktikak jarraitu eta gainbegiratzeaz. Datu horiek PRAKTIKEN HITZARMENEAN daude jasota. GAUREtik mezu automatiko bat bidaltzen zaie kanpoko begiraleari eta unibertsitateko tutoreari tutoretzaren esleipenaz.

## 10. Nola eta nork ebaluatzen ditu nire praktikak?

Praktikaldia amaitzean:

1. Praktiken zentroko begiraleak GAUREn beteko du ikaslearen ebaluazio txostena (EZ DA NAHITAEZKOA).
2. Praktikak amaitzen diren egunean, ikasleak GAUREn mezu automatiko bat jasoko du, praktikak amaitu dituela eta praktikei buruzko galdetegi labur bat formalizatu behar duela adierazita. EZ DA MEMORIA BAT, GAUREn egiten den praktiken ebaluazio bat baizik.
3. Unibertsitateko tutoreak GAUREn mezu bat jasoko du, ikaslearen ebaluazioa egin behar duela jakinarazteko. Behin ikaslearen eta begiralearen balorazioa jasota, unibertsitateko tutoreak, GAUREn, ikaslearen ebaluazio txostena beteko du, eta "gai/ez gai" gisa kalifikatuko da.
4. Ikasleak adi egon behar du GAUREkin eta tik berde bat ikusi behar du bere ebaluazioan eta barruko tutorearenean. Orduan BAKARRIK eska dezakezu praktikak egin izanaren ziurtagiria.

## 11. Nola baliozkotuko ditut praktikak?

Ikasleak curriculumetik kanpoko praktikengatik hautazko 6 kreditu aitortzeko eska dezake. Aitorpen hori graduko ikasketetan kredituak aitortu eta transferitzeari buruzko araudian ezarritakoaren arabera arautuko da. Ondorio horietarako, 25 orduko praktikaldi bakoitza ECTS kreditu baten baliokidea izango da.

Ziurtagiria GAUREn eskatzen da (IKASLEAK ETA BARRUKO TUTOREAK

DAGOZKION EBALUAZIOAK EGIN BADITUZTE BAKARRIK SORTZEN DA), eta idazkaritzan sinatuta jasotzen da. Ziurtagiri hori edukita, kredituak aitortzeko eska daiteke idazkaritzan.

## **12. zer egin behar dut, praktiketan egon aurretik, bitartean edo ondoren, gorabeheraren bat badut?**

Fakultateko zure tutoreari jakinarazi, eta hark baloratuko du zer egin behar den eta praktiken arduradunei jakinarazi behar zaien.

## **13. Non lor dezaket informazio gehiago edo beste zalantza batzuk argitu?**

Borondatezko praktikekin zerikusia duen edozein alderditarako gurekin harremanetan jar zaitezke:

- **Helbide elektronikoa:** [monika.salgueiro@ehu.eus](mailto:monika.salgueiro@ehu.eus) / [psikologia.fak.praktikak.dekanordea@ehu.eus](mailto:psikologia.fak.praktikak.dekanordea@ehu.eus)
- **Telefonoak:** 943.018.297 / 943.018.298 / 943.018.299 / 943.015637 / 943.018321